Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko otsailaren 12a, asteazkena — 28 — Miércoles, a 12 de febrero de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Karrerako funtzionario izendatzea*

Alkateak Dekretu hauek (2806/2024 zk. eta 27/2025 zk.) erabaki ditu, 2024ko abenduaren 26an eta 2025eko urtarrilaren 8an, duen eskumenaz baliatuta:

I. 2022ko abenduaren 5ean eta 14an egindako bilkuretan, Toki Gobernu Batzarrak Administrazio Orokorreko eskalako teknikarien azpieskalako administrazio orokorreko teknikarien (A1 azpitaldea) (1.1.4) 2 plaza, lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu zituen, 20/2021 Legeko 6. eta 8. xedapen gehigarriei jarraikiz.

Iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2022ko abenduaren 30ean.

II. Merezimenduen balorazioa amaitu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileak argitara eman zuen Xabier Aranburu Soldevilla jauna praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena.

III. 2024ko ekainaren 21eko 1339 zenbakidun dekretuaren bidez, Alkatetzak Xabier Aranburu Soldevilla jauna praktiketako funtzionario izendatu zuen, abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoaren arabera, Administrazio Orokorreko eskalako teknikarien azpieskalako administrazio orokorreko teknikari plaza (A1 azpitaldea) (1.1.4) behin-behinean betetzeko, Zerbitzu juridikoetako AOT (Ondarea, ondare-erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena) lanpostuan.

IV. Deialdiaren Oinarri Orokorren 16. atalean honakoa jasotzen da:

16.1. Praktikaldi bat ezarriko da funtzionario lanpostuetarako, (...).

16.2. Probaldiaren edo praktikaldiaren iraupena (...): a) A eta B taldea: 6 hilabete (...).

16.4. Aldi hori amaitutakoan, tutore izendatutako pertsonak (edo ebaluazio-batzordeak) txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du izangaiek probaldia edo praktika aldia gainditu duten. Gainditzen dutenak karrerako funtzionario izendatuko dira (...).

V. Udaletxeko Idazkari Nagusia eta tutorea den Amaia Gorrotxategi Zubizarreta andreak, 2024ko azaroaren 23an sinatutako txostenean, Xabier Aranburu Soldevilla jaunak praktikaldia gainditu duela jaso du.

VI. Aranburu jauna karrerako funtzionarioa da gaur egun Zarauzko Udalean, Hirigintza, Plangintza eta Ingurumen Departamentuko administrari plazan. 11/2022 legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarenak, bere 148. artikuluan, honakoa dio:

«148. artikulua. Sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia.

1. Karrerako funtzionarioek sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia eskatu ahalko dute baldin eta zerbitzu aktiboan badaude, karrerako edo bitarteko funtzionario eskakizunik gabeko taldekatze profesional batean, edo langile lan-kontratudun finko edo aldi baterako moduan, edozein administrazio publikotan, non eta dagokien bateragarritasuna

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Nombramiento de funcionario de carrera*

El Sr. Alcalde con fecha 26 de diciembre de 2024 y 8 de enero de 2025, ha dictado los siguientes Decretos (n.º 2806/2024 y n.º 27/2025), en virtud de la competencia atribuida:

I. La Junta de Gobierno Local, en sesiones celebradas los días 5 y 14 de diciembre de 2022, aprobó la convocatoria y las bases reguladoras para la provisión, por concurso y turno libre, de 2 plazas de técnico/a de administración general de la subescala técnica de la Escala de administración general (subgrupo A1) (1.1.4), de conformidad con las disposiciones adicionales 6.ª y 8.ª de la Ley 20/2021.

Las bases de la convocatoria se publicaron en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 30 de diciembre de 2022.

II. Terminada la valoración de los méritos, el Tribunal Calificador hizo pública la propuesta de nombramiento como funcionario en prácticas a favor de D. Xabier Aranburu Soldevilla.

III. Mediante el decreto de alcaldía n.º 1339 de 21 de junio de 2024, se nombró a D. Xabier Aranburu Soldevilla como funcionario en prácticas según lo establecido en la Ley 20/2021 de 28 de diciembre, para cubrir provisionalmente una plaza de técnico de administración general de la subescala técnica de la Escala de administración general (subgrupo A1) (1.1.4), en el puesto de TAG de servicios jurídicos (Patrimonio, responsabilidad patrimonial y potestad sancionadora).

IV. Según el apartado 16 de las Bases Generales de la convocatoria:

16.1. Se establecerá un periodo de prácticas para las plazas de personal funcionario (...).

16.2. La duración del periodo de prueba o de prácticas será (...): a) Grupo A y B: 6 meses (...).

16.4. Una vez finalizado este periodo, la persona designada tutora (o la comisión evaluadora) emitirá su informe, en el cual tendrá que hacer constar expresamente si los/las aspirantes han superado el periodo de prueba o de prácticas. Quienes lo superen serán nombrados/as funcionarios/as de carrera (...).

V. La Secretaria General del Ayuntamiento y tutora, D.ª Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, ha determinado en su informe de 23 de diciembre de 2024, que D. Xabier Aranburu Soldevilla, ha superado el periodo de prácticas.

VI. D. Xabier Aranburu Soldevilla es en la actualidad funcionario de carrera en el Ayuntamiento de Zarautz, concretamente en una plaza de Administrativo adscrito al Departamento de Urbanismo, Planificación y Medio Ambiente. La ley 11/2022 de Empleo Público Vasco, en su artículo 148, regula lo siguiente:

«Artículo 148. Excedencia voluntaria para prestar servicios en el sector público.

1. El personal funcionario de carrera podrá acogerse a la excedencia voluntaria para prestar servicios en el sector público por encontrarse en servicio activo como personal funcionario de carrera o interino, estatutario fijo o temporal en otro cuerpo, o escala o agrupación profesional sin requisito de titulación o como personal laboral fijo o temporal de cualquier administración pú-

lortu duten, edo sektore publikoko entitateetan zerbitzuak ematen hasten badira eta ez badagokie beste egoera batean geratzea.

2. Eszedentzia ofizioz emango da baldin eta zerbitzuak emateari ekiten bazaio administrazio edo entitate publiko bereko beste kidego, eskala edo titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesional batean edo langile lan-kontratudun modura. Gainerako kasuetan, funtzionario interesdunek eskatuta deklaratuko da eszedentzia.

3. Karrerako funtzionarioek egoera horretan jarraitu ahal izango dute egoera hori eragin zuen zerbitzu-harremanak dirauen bitartean.

4. Karrerako funtzionarioek, kargua uzteko datatik aurrera, hogeita hamar egun natural izango dituzte zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko. Hala egin ezean, norberaren interesagatiko borondatezko eszedentzian deklaratuko dira, ofizioz, eta egoera horretan iraun beharko dute gutxienez bi urte jarraian, zerbitzu aktibora itzultzeko eskaera egiteko ezarritako epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

5. Sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzian dauden karrerako funtzionarioek eutsi egingo diote karrerako funtzionarioaren izaerari sorburu-administrazioan, baina ez zaie erreserbatuko ez lanpostua, ez destinoa, eta benetako destinoa duten administrazio publikoaren araubidea aplikatuko zaie.

(…)»

Hori horrela, honako hau

ERABAKITZEN DUT

*Lehena.* Xabier Aranburu Soldevilla jauna karrerako funtzionario izendatzea, Administrazio Orokorreko eskalako teknikarien azpieskalako administrazio orokorreko teknikari plazan (A1 azpitaldea) (1.1.4), eta Zerbitzu juridikoetako AOT (Ondarea, ondare-erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena) lanpostuan.

*Bigarrena.* Izendapenak, 2024ko abenduaren 27tik aurrera izango du eragina.

*Hirugarrena.* Aranburu jauna, sektore publikoan zerbitzuak emateko borondatezko eszedentzia egoeran aitortzea Zarauzko Udalean zuen Administrari plazan, 11/2022 legeak 148. artikuluan zehazten duen baldintzetan 2024ko abenduaren 27tik aurrera.

*Laugarrena.* Ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta, osagarri gisa, Udaleko web gunean argitaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitalpenaren hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko atalean adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Zarautz, 2025eko urtarrilaren 29a.—Alkatea. (725)

blica, salvo que hubiese obtenido la oportuna compatibilidad, o pase a prestar servicios en entidades del sector público y no le corresponda quedar en otra situación.

2. La excedencia se concederá de oficio en el supuesto de pasar a prestar servicios en otro cuerpo, escala o agrupación profesional sin requisito de titulación o como personal laboral de la misma administración o entidad pública. En los demás casos, se declarará a instancia del personal funcionario interesado.

3. El personal funcionario de carrera podrá permanecer en esta situación en tanto se mantenga la relación de servicios que dio lugar a la misma.

4. El personal funcionario de carrera dispondrá de treinta días naturales desde la fecha del cese para solicitar el reingreso al servicio activo. Caso de no hacerlo, será declarado de oficio en la situación administrativa de excedencia voluntaria por interés particular, y deberá permanecer en la misma un mínimo de dos años continuados, contados a partir del día siguiente a la finalización del plazo establecido para efectuar la solicitud de reingreso.

5. El personal funcionario de carrera en situación de excedencia voluntaria para prestar servicios en el sector público conservará la condición de personal funcionario de carrera en la administración de origen, sin reserva de puesto ni destino, y se le aplicará el régimen de la administración pública en la que esté destinado de forma efectiva.

(…)»

Por todo ello,

RESUELVO

*Primero.* Nombrar a D. Xabier Aramburu Soldevilla como funcionario de carrera según lo establecido en la Ley 20/2021 de 28 de diciembre, en la plaza de técnico de administración general de la subescala técnica de la Escala de administración general (subgrupo A1) (1.1.4), y adscribirlo al puesto de TAG de servicios jurídicos (Patrimonio, responsabilidad patrimonial y potestad sancionadora).

*Segundo.* El nombramiento tendrá efectos a partir del 27 de diciembre de 2024.

*Tercero.* Declarar desde el 27 de diciembre de 2024, en situación de excedencia voluntaria para prestar servicios en el sector público, concretamente en la plaza de Administrativo, al señor Aranburu, en los términos y condiciones del artículo 148 de la ley 11/2022 de Empleo Público Vasco.

*Cuarto.* Publicar la presente resolución en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y, complementariamente en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía Administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el apartado anterior, podrá interponerse recurso de reposición ante el órgano que dictó la resolución en el plazo de un mes.

En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido la desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de que pueda interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

Zarautz, a 29 de enero de 2025.—El alcalde. (725)

EK\CV GAO-I-2025-00725